

URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681
IRAKASGAIA	TUBA	MAILA	OINARRIZKO IRAKASKUNTZEKO

Sarrera

Oinarrizko maila osatzen duten lau kurtsoek garrantzi handiko etapa osatzen dute instrumentista gaiaren garapenerako. Etapa honetan, alde batetik, teknika zuzen eta eraginkorraren oinarriak ezarri behar dira, eta bestetik, eta are garrantzitsuago, kontzeptu musikal batzuk finkatu behar dira, hori guztia umotzeko behar den denbora igarotakoan benetako interprete kontzientzia sor dadin. Interpretazioaren arazoa testua ondo ulertzearekin hasten da. Testua, hain zuzen ere, partituran bildutako ikur edo zeinuen sistema bat da, eta mendeetan zehar aberastu bada ere, fenomeno musikala (berriz sortzea eskatzen duen zerbait denez, subjektiboki desberdin diren ikuspuntuetatik aztertu behar den zerbait denez) azaltzeko muga gaindiezinak ditu eta izango ditu beti. Musikak berezko duen ikur-sistema ikastea eskatzen du horrek, eta ikasketa hori instrumentu-praktika baino lehen ala horrekin batera has daiteke. Sistema hori, beraz, beharrezko datuak paperean finkatzeko

erabiltzen da, gutxi gorabehera baino ez bada ere. Hortaz, interpretegaiaren lana honako hau izango da:

- 1) partitura zuzen irakurtzen ikasi;
- 2) gero, irakurketaren bidez, idatzitakoaren zentzua bilatu, bere balio estetikoaz jabetu ahal izateko;
- 3) aldi berean, instrumentu bat erabiltzeko behar den trebetasuna garatu, musika-testu hori interpretatzean mezu esanguratsuen dimentsio osoa lor dadin.

Kontzepzio pedagogiko moderno batek oinarrizko abiapuntua hartu behar du: haur baten bokazio musikala, askotan –gehienetan, beharbada-, ondo definitu gabe egon daiteke oraindik. Horrek nahitaez eskatzen du eman behar zaizkion ezagutza teorikoak eta ezinbestean eman beharko dituen praktika-orduak ahalik eta era erakargarrienean azaltzea, benetako interesa izan dezan proposatzen zaion lanean, eta, horrela, haurrak izan dezakeen hastapeneko bokazioa indar dadin.

Bilakaera intelektual eta emozionala oso azkarra izaten da oinarrizko mailako ikasketak egiten diren adinean (gutxi gorabehera, 8-12 urte bitartean). Horrek esan nahi du planteamendu pedagogikoak –didaktikaren arlo orokorrean, nahiz irakasle eta ikaslearen arteko harreman pertsonalaren arlo konkretu eta subjektiboenean- etengabe egokitu behar zaizkiola ikaslearen nortasun aldakorari; haurtzaroko harmen handiari ahalik eta etekin handiena atera behar zaiola; berezko gaitasunei garatzen lagundu behar zaiela; afektibitateari heltzen lagundu behar zaiola; eta, aldi berean, gero eta abstrakzio-ahalmen handiagoa erabiltzeko aukera ematen dioten baliabideak jarri behar direla haurren esku. Musika, hizkuntza guztiak bezala, etxekotze-prozesu luze-labur baten bidez bilakatzen da ulergarri. Prozesu hori haurtzaroan hasten da, ikasleak oinarrizko mailako ikasketa bereziak hasteko behar diren baldintza zehatzak eta adina izan aurretik.

Une hori iristen denean, ikasleak, bere ingurunea betetzen duen musikaz blai, intuizioaren bidez ikasi du hizkuntza honen elementuak ezagutzen; «ulertzeko» aukera ematen dioten bideak nolabait baditu, hizkuntza gobernatzen duten legeak ezagutzen ez baditu ere.

Baina «hitz egiteko» aukera emango dioten baliabideak behar ditu; eta baliabide horietxek dira, hain zuzen ere, oinarrizko mailako irakaskuntzak eskura jarri behar dizkionak.

Aukeratutako instrumentuaren baliabideak erabiltzen trebatzearekin batera –«teknika» deitzen diogu horri, okerrago ala zuzenago-, ikaslearen kontzientzia bideratu behar da, fenomeno musikalak eta bere interpretazioak planteatzen dituen eskakizunak sakonago

ulertzerako. Horretarako, musika-egitura orok, are simple edo soilenak ere, oinarri dituen elementu sintaktikoak ikusarazi behar zaizkio; baita interpretazioa, bere alderdi guztietan, adierazpeneko nahiz morfologikoetan (dinamika, agogika, osagai formalek zein beste guztiek osatzen duten batasunaren eta osotasunaren pertzepzioa, hau da, oro har) egitura sintaktiko horri funtzionalki lotuta dagoela ere.

Oinarrizko musika-«gramatika» hori, beraz, honako hau baino ez litzateke izango: beste diziplina batzuetan (musika-hizkuntzan, batez ere) ikasitako ezagutza teorikoak zehatz aplikatzea ikasleak egin behar duen programa osatzen duten obren erreperitorioari. Ezagutza

horiek, noski, Maila Ertainean zabaldu eta sakondu beharko dira, dagozkien irakasgaiak ikasita.

Horretarako, beharrezko da, ezinbesteko ez esateagatik, instrumentista jabetu dadin oroimena –funtsezko adimen-gaitasun hori garatzea- garrantzi handikoa dela jotzaile huts, eta are gehiago, interprete izateko prestakuntzan.

Aipatu egin behar da, instrumentua jotzeko ezinbestekoak diren automatismoen edo ekintza erreflexuen sare konplexu eta erraldoiak osatutako oinarritzko subkontziente- oroimen hori alde batera utzirik:

- 1) beti gogora daitekeena besterik ez dagoela ikasia;*
- 2) memorizatzea laguntzaile bikaina dela ikasteko; izan ere, zenbait abantailaren artean, denbora-aurrezte garrantzitsuak ekar ditzake, eta une jakin batean, partitura alde batera uzteko aukera eman dezake, arreta osoa bideratuz arazo teknikoak behar bezala konpontzera, eta errealizazio egokira, musika zein espresioaren ikuspuntutik, eta*
- 3) oroimena guztiz garrantzizkoa dela, obra bat bere osotasunean ulertzeko; obra denboran zehar garatzen den heinean, oroimenak bakarrik ematen baitu bere koherentzia eta bere bilakaeraren osotasuna berreraikitzeo aukera.*

Helburu horiek lortzeko, instrumentistak, aukeratutako instrumentuak eskaintzen dizkion aukera guztiak erabat menderatzen lagunduko dioten gaitasun espezifikokoak garatzera iritsi behar du, gaitasun horiek ariketa gimnastiko huts bilakatzeko arriskua saihestuz, betiere.

Oinarritzko mailaren helburuak.

Musika-irakaskuntzetako oinarritzko mailak ikasleengan ondoko gaitasunak garatzen lagunduko du:

- a) Musikaren garrantziaz jabetzea, herrien eta pertsonen arte-hizkuntza eta kultura-adierazpide den aldetik.*
- b) Musika- eta estetika-sentikortasunez jardutea, aro eta estilo desberdinetako musika interpretatu eta gozatu, komunikazio-ahalmenak aberastu eta pertsona gisa errealizatzeko.*
- c) Arnasketaren eta nor bere gorputzaren kontrolaren garrantzia ezagutu eta baloratzea, instrumentu-teknika, soinu-kalitate eta interpretazio-garapenari dagokienez.*
- d) Instrumentua jotzeak behar dituen muskulu-erlaxazioaren eta ezinbesteko ahalegin edo esfortzuaren arteko oreka aurkitzea, ondokoa kontuan hartuta: gorputzak osotasun gisa funtzionatzen duela, bizkarrezurra ardatz duela.*
- e) Musika-ezagutzak bakoitzaren espezialitateko instrumentuaren idazketaren eta literaturaren ezaugarriekin erlazionatzea, interpretazio artistikoa garatzea ahalbidetuko duten oinarriak eskuratzearren.*
- f) Jendaurrean interpretatzea, bakoitzak bere buruan aski segurtasun izanik musika komunikabidez bizi ahal izateko.*
- g) Musika taldeka interpretatzea, beste ahots edo instrumentuak entzuteko hituz eta taldera harmonikoki egokituz.*
- h) Bakoitzaren lanaren garrantziaz jabetzea, eta nork bere burua entzuteko eta kritikatzeko ahalmena eskuratzeko.*
- i) Isiltasuna ezinbestekotzat jotzea kontzentrazioaren, barne-entzumenaren eta musika-pentsamenduaren garapenerako.*

METALEZKO HAIZE-INSTRUMENTUAK

Tronpa, Tronpetak, Tronboia, Tuba

Helburuak.

Metalezko haize-instrumentuen oinarritzko mailako irakaskuntzak ikasleengan honako gaitasun hauek garatzen laguntzea izango du helburu:

- a) Airearnasketa diafragmatikoaren eta ahoa osatzen duten muskuluen bidez kontrolatzea, soinuaren emisio, afinazio, artikulazio eta malgutasun zuzena lortzearren.*
- b) Noten afinazioa eta soinuaren kalitatea automatikoki zuzentzeko behar diren erreflexuek zehatz-mehatz erabiltzen jakitea.*
- c) Instrumentuaren ezaugarriak eta soinu-aukerak ezagutzea, eta mailaren eskakizunen arabera, bakarlari nahiz taldekide modura erabiltzen jakitea.*
- d) Afinazioaren kontrol iraunkorra eta soinuaren kalitatearen hobekuntza jarraia izateko aukera ematen duen entzumen-sentikortasuna erakustea.*
- e) Estilo eta garai desberdineko eta maila honen arabera zailtasuna duten obrez osatutako erreperorioa interpretatzea.*

Edukiak

Birika-educiera garatzeko lasaitzea eta arnasketa lantzea.

Aurpegi-muskuluak indartzea.

Entzumenaren garapena, soinuaren kalitate ona lortzeko ezinbesteko baldintza baita.

Soinu-emisioari buruzko ikasketak.

Hatz-jokoaren oinarriko printzipioak.

Artikulazio-praktikak.

Dinamika lantzea.

Ezpainen malgutasuna garatzea, lotutako bitarteak eta posizio finkoak landuz.

Pitaren azterketa.

Tamaina dela eta, tuba edo tronboia (bonbardinoa edo pistoi-tronboia) edo tronpeta (kornetatxoa edo pistoi- korneta) jotzea errazten duten antzeko instrumentuak erabiltzea.

Oroimena etengabe eta arian-arian lantzea.

Ikasteko ohitura egoki eta eraginkorrak lortzea.

Obra edo zati errazak bat-batean irakurtzea. Musika- egiturak euren mailetan -motiboak, gaiak, aldeak, faseak, atalak, eta abar- ulertzeko hastapenak, horren bitartez interpretazio kontzientera iristeko.

Arian-arian hautatzea ariketak, estudioak eta erreperatorioko obrak, ikaslearen musika- eta teknika-gaitasuna batera garatzeko egokitzat hartzen direnak. Taldeko praktika

Ebaluazio-irizpideak.

Instrumentuaren oinarriko maila

1.– Testuak lehen begiradan erraz, eta ulertuz, irakurtzea.

Ebaluazio-irizpide honek, ikasleak testuak irakurtzen nolabaiteko autonomiaz aritzeko duen gaitasuna egiaztatu nahi du.

2.– Musika-testuak buruz ikasi eta interpretatzea, beren edukientzat egokiak diren neurri, afinazio, artikulazio eta fraseatuak erabiliz.

Ebaluazio-irizpide honek, oroimenaren bidez, musika-hizkuntzari buruzko ezagumendu teoriko-praktikoak egoki erabiltzea egiaztatu nahi du.

3.– Obrak interpretatzea, dagozkien estilo-irizpideei jarraituz.

Ebaluazio-irizpide honek hauxe egiaztatu nahi

du: ikasleak tenpoa, artikulazioa eta dinamika interpretaziorako oinarriko elementu modura erabiltzeko duen gaitasuna.

4.– Entzunaldi baten ondoren, entzundako obren ezaugarri adierazgarriak deskribatzea. Irizpide honekin, ikasleak bere heldutasun intelektual eta emozionalaren mailaren eta bere formazio teorikoaren arabera uler ditzakeen obren oinarriko alderdiez jabetzeko duen gaitasuna ebaluatu nahi da, berriak direlako edo zailtasun tekniko dela eta neurritz gainekoak zaizkiolako interpretatu ez arren.

5.– Estudio eta obratan ikasketa indibidual mailakatua burutzeko ahalmena erakustea. Ebaluazio-irizpide honek hauxe egiaztatu nahi du: ikasleak gai direla irakaslearen esanak bere ikasketetan aplikatzeko, eta horrela, beren errendimendua egoki ebaluatzeko autonomia mailakatua garatzeko.

6.– Jendaurrean, bakarlari gisa eta buruz jotzea bere mailaren adierazgarri den zenbait obra, segurtasuna erakutsiz eta egoeraren jabe. Ebaluazio-irizpide honek, oroimen- eta autokontrol-ahalmena, eta ikasitako obra menperatzen dela egiaztatu nahi ditu. Era berean, ikasketarako zaletasuna sustatzea eta jendaurrean jotzeko egoerara ohitzea nahi du.

7.– Talde bateko partaide aritzea, eta beste instrumentu eta ahotsak entzun edo horietara moldatzen den bitartean jotzeko edo abesteko gaitasuna agertzea.

Ebaluazio- irizpide honek arreta ematen dio ikasleak afinazioa, doitasun erritmikoa, dinamika, eta abar bere elkarlaneko.

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681
IRAKASGAIA	TUBA	MAILA	OINARRIZKO IRAKASKUNTZEKO 1. MAILA

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>a) Postura eroso lantzea, naturalki arnasten utziko duena eta bi eskuen arteko koordinaketa eta instrumentuaren kolokazioa erraztuko dituen</p> <p>b) Aire zutabea eta ahoratzea egokitzen hastea,</p> <p>c) Ahoratzearen muskuluen kontrolaren bidez emisio on bat lortzen hastea.</p> <p>d) Instrumentuen zatiak, muntaia eta doinu sormenaren sistema ezagutzea.</p> <p>e) Oinarrizko dijitazioakikastea.</p> <p>f) Lengoaia musikalaren ezagutzak instrumentuarekin erlazionatu eta erabiltzea.</p> <p>g) Imitazio eta inprobisazioan hastea.</p> <p>h) Bakarka edo taldean, mailari dagozkion zailtasuneko piezak jotzea.</p> <p>i) Musikarekiko sentsibilitatea bilatzea.</p> <p>j) Musikaren espresiorako gune naturalak diren kontzertuetan parte hartzea.</p>	<p>Maila hauetan ebaluaketa jarraitua landuko da, honen eta entzunaldien laguntzaz proposatu diren helburuak zein neurritan betetzen diren aztertuko da. Aurrerantzean egingo den lan guztiaren oinarriak une honetan ezartzen direnez, hauen sendotasuna neurtu behar da.</p> <p>Ikasleak irakasleak proposatzen dituen ekintzen aurrean eta ikaskideekin azaltzen duen jarrera ere kontutan hartuko da</p> <p>Jarrerak:</p> <p>a) Instrumentuaren ezaguerarekiko gogo sortzea.</p> <p>b) Gorputzaren jarrera eta tentsio-erlaxazio indarren arteko orekaren garrantziaz jabetzea.</p> <p>c) Zailtasunen aurrean eguneroko lanaren behararen garrantziaz jabetzea.</p> <p>d) Norberaren aurkikuntzak adierazteko gogo edukitzea.</p> <p>e) Interpretazioaz gozatzea.</p> <p>f) Musikarekin zerikusia duen edozereko jakin-mina edukitzea.</p> <p>g) Bai irakaslearen eta baita beste ikaskideen proposamenak baloratu eta errespetatzen jakin.</p>

EDUKIEN SEKUENTZIA

<p>a) Gorputzaren ezagutza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputzaren mugimendua. - Erlaxazioa. - Arnasketa.- pixkakako entrenamendua airea biriken behealdean kokatu ahal izateko. Haize zutabea presio abdominalaren bidez eusteko ahalmena landu. <p>b) Tresnaren ezagutza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpena. - Bilakaera historian zehar. - Entretanimendua. - Ahoratzea, emisio naturala. - Teknika.- instrumentuaren teknikaren hastapenak: dijitazioa, artikulatzea, irakurketa. <p>c) Lengoaia musikalaren ezagutza instrumentuarenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lengoaia musikalaren aplikazio praktikoa. - Memoria musikalaren indartze eta erabiltze progresiboa. - Musikaren estrukturak ezagutzen hasi. <p>d) Interpretazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tresnaren espresibideak.- eritmoaren justutasuna, artikulatzeak, esaldiak, etab. - Musika eta komunikazioa. - Musika entzunaldiak. - Inprobisazioan hasi.
--

METODOLOGIA (ORIENTAGARRIA)

ESCUCHAR, LEER & TOCAR 1, Método de tuba o bombardino con cd (ed. de haske): Las 12 primeras unidades.

1. METODO DE TUBA (Concone - Marchesi)
2. ESSENTIAL ELEMENTS 2000, Book 1 – Tuba o Euphonium (ed. Encore Music)
3. FIRST BOOK OF PRACTICAL STUDIES FORTUBA.R, W. Getchell (1 -14)
 - ESCALAS: Do M y Sib (para Tuba) y Sib y Mib (para Bombardino)
 - Pequeñas piezas para tuba, adaptadas al nivel con acompañamiento de CD.

SOLOS FOR KIDS DISNEY

KIDS PLAY SOLO

ERREFERENZIAKO OBRAK:

TUBADOUR.....R. Fote

FERRIPEX. Cardona

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Behaketa zuzena klaseetan zehar:	60%
Klaseko asistentzia	10%
Erregularatasuna banakako lanean. Helburuen emaitzan aurrera egitea	
Aldizkako kontrolak:	15%
- Entzunaldiak	15%
- Hiru hileroko ikasgelako kontrolak	
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Etengabeko E. Galtzea: berreskuratzeko PROBA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute beraien deialdi arruntean (ekainaren hasieran). • Ebaluazio arruntean (azken kalifikazioa) nota negatiboa duten ikasleek aparteko deia (ekainaren erdialdean) berreskuratzeko TESTU TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute. • Gaia ikasgaiarekin sustatzen duten ikasleek hurrengo ikastaroko ebaluazioren batean berreskura ditzakete. 	
ERREKUPERAZIOZKO PROBA TEKNIKO-INTERPRETATIBOKOA	
<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleak aukeratutako eskalen, ikasketen eta lanen programa interpretatzea, eskatutako mailaren arabera. 	

OHARRAK

Metodologiaren zerrendak Tuba zein Euphonium-entzat azterlanak eta lanak biltzen ditu.

Proposatutako ikasketak eta lanak orientagarriak dira eta hauek edo beste batzuk izan daitezke irakaslearen esku.

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681
IRAKASGAIA	TUBA	MAILA	OINARRIZKO IRAKASKUNTZEKO 2. MAILA

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>a) <i>Jotzen ongi pasatzea.</i></p> <p>b) <i>Postura eroso lantzea, naturalki arnasten utziko duena eta bi eskuen arteko koordinaketa eta instrumentuaren kolokazioa erraztuko dituen</i></p> <p>c) <i>Aire zutabea eta enbokadura egokitzea, arnasketa diaframatikoaren erabilera lortzeko.</i></p> <p>d) <i>Enbokaduraren muskuluen kontrolaren bidez emisio on bat lortzea.</i></p> <p>e) <i>Instrumentuen zatiak, doinu sormenaren sistema, aukerak eta muntaia ezagutzea.</i></p> <p>f) <i>Oinarrizko dijitazioak ikastea.</i></p> <p>g) <i>Lengoaia musikalaren ezagutzak instrumentuarekin erlazionatu eta erabiltzea.</i></p> <p>h) <i>Imitazio eta inprobisazioan hastea.</i></p> <p>i) <i>Bakarka edo taldean, mailari dagozkion zailtasuneko piezak jotzea.</i></p> <p>j) <i>Musikarekiko sentsibilitatea eta barne entzumena lortzea audizio, memorizazio eta interpretazioaren bidez.</i></p> <p>k) <i>Musikaren espresiorako gune naturalak diren kontzertuetan parte hartzea.</i></p>	<p>a) <i>Maila hauetan ebaluaketa jarraitua landuko da, honen eta entzunaldien laguntza proposatu diren helburuak zein neurritan betetzen diren aztertuko da.</i></p> <p>b) <i>Aurrerantzean egingo den lan guztiaren oinarriak une honetan ezartzen direnez, hauen sendotasuna neurtu behar da.</i></p> <p>c) <i>Ikasleak irakasleak proposatzen dituen ekintzen aurrean eta ikaskideekin azaltzen duen jarrera ere kontutan hartuko da</i></p> <p>d) <i>Jarrerak:</i></p> <p>e) <i>Instrumentuaren</i></p> <p>f) <i>ezaguerarekiko gogo sortzea.</i></p> <p>g) <i>Gorputzaren jarrera eta tentsio-erlaxazio indarren arteko orekaren garrantziaz jabetzea.</i></p> <p>h) <i>Zailtasunen aurrean eguneroko lanaren behararen garrantziaz jabetzea.</i></p> <p>i) <i>Norberaren aurkikuntzak adierazteko gogo edukitzea.</i></p> <p>j) <i>Interpretazioaz gozatzea.</i></p> <p>k) <i>Musikarekin zerikusiaduen edozerekin jakin-mina edukitzea.</i></p> <p>l) <i>Bai irakaslearen eta baita beste ikaskideen proposamenak baloratu eta errespetatzen jakin.</i></p>

EDUKIEN SEKUENTZIA

<p>a)Gorputzaren ezagutza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputzaren mugimendua. - Erlaxazioa. - Arnasketa.- pixkakako entrenamendua airea biriken behealdean kokatu ahal izateko. Haize zutabea presio abdominalaren bidez eusteko ahalmena landu. <p>b)Tresnaren ezagutza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpena. - Bilakaera historian zehar. - Entretanimendua. - Enbokadura, emisio naturala. - Aukera akustikoak. - Teknika.- instrumentuaren teknikaren hastapenak: dijitazioa, artikulatzea, irakurketa. <p>c)Lengoaia musikalaren ezagutza instrumentupean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lengoaia musikalaren aplikazio praktikoa.
--

- Memoria musikalaren indartze eta erabiltze progresiboa.
 - Musikaren estrukturak ezagutu eta ulertu.
- d) Interpretazioa:
- Tresnaren espresio bideak.- afinazioa, dinamika, erritmoaren justutasuna, artikulatzeak, enpatea, esaldiak, etab.
 - Musika eta komunikazioa.
 - Musika entzunaldiak.
 - Inprobisazioan hasi.
 - Irakurketa

METODOLOGIA (ORIENTAGARRIA)

- ESCUCHAR, LEER & TOCAR 1, Método de tuba o bombardino con cd (ed. de haske): desde la unidad 13 hasta el final.
- ESCUCHAR, LEER & TOCAR 2, Método de tuba o bombardino con cd (ed. de haske): Las 11 primeras unidades.
- METODO DE TUBA (Concone - Marchesi)
- FIRST BOOK OF PRACTICAL STUDIES FORTUBA.R, W. Getchell (15 -31)
- ESSENTIAL ELEMENTS 2000, Book 1 – Tuba o Euphonium (ed. Encore Music)
- ESCALAS: Hasta 3 alteraciones
- Pequeñas piezas para tuba, adaptadas al nivel con acompañamiento de CD.

SOLOS FOR KIDS DISNEY

KIDS PLAY SOLO

EASY DISNEY FAVORITES

ERREFERENZIAKO OBRAK:

Tubavardage.....P. Seguin

The Nervous Turkey Rag.....J. Barnes

PasatiemposE. Gacía Gil

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Behaketa zuzena klaseetan zehar:	60%
Klaseko asistentzia	10%
Erregularitasuna banakako lanean. Helburuen emaitzan aurrera egitea	
Aldizkako kontrolak:	15%
- Entzunaldiak	15%
- Hiru hileroko ikasgelako kontrolak	

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

- Etengabeko E. Galtzea: berreskuratzeko PROBA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute beraien deialdi arruntean (ekainaren hasieran).
- Ebaluazio arruntean (azken kalifikazioa) nota negatiboa duten ikasleek aparteko deia (ekainaren erdialdean) berreskuratzeko TESTU TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute.
- Gaia ikasgaiarekin sustatzen duten ikasleek hurrengo ikastaroko ebaluazioren batean berreskura ditzakete.

ERREKUPERAZIOZKO PROBA TEKNIKO-INTERPRETATIBOKOA

- Irakasleak aukeratutako eskalen, ikasketen eta lanen programa interpretatzea, eskatutako mailaren arabera. Metodologiaren zerrondak Tuba zein Euphonium-entzat azterlanak eta lanak biltzen ditu. Proposatutako ikasketak eta lanak orientagarriak dira eta hauek edo beste batzuk izan daitezke irakaslearen esku.

OHARRAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Metodologiaren zerrendak Tuba zein Euphonium-entzat azterlanak eta lanak biltzen ditu.
 Proposatutako ikasketak eta lanak orientagarriak dira eta hauek edo beste batzuk izan daitezke irakaslearen esku.

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681
IRAKASGAIA	TUBA	MAILA	OINARRIZKO IRAKASKUNTZEKO 3. MAILA

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>a) Jotzen ongi pasatzea.</p> <p>b) Postura eroso lantzea, naturalki arnasten utziko duena eta bi eskuen arteko koordinaketa eta instrumentuaren kolokazioa erraztuko dituenak.</p> <p>c) Aire zutabea egokitzea, arnasketa diafragmatikoaren erabilera lortzeko.</p> <p>d) Enbokataduraren muskuluen kontrolaren bidez emisio on bat lortzea.</p> <p>e) Instrumentua jotzeko behar diren muskuluen koordinaketa lortu.</p> <p>f) <i>Instrumentuaren ezaugarri akustikoen berri ikasi eta erabiltzen hasia.</i></p> <p>g) Lengoia musikaren ezagutzak instrumentuarekin erlazionatu eta erabiltzea.</p> <p>h) Imitazio eta inprobisazioan aritzea.</p> <p>i) Bakarka edo taldean, mailari dagozkion zailtasuneko piezak jotzea.</p> <p>j) Musikarekiko sentsibilitatea eta barne entzumena lortzea audizio, memorizazio eta interpretazioaren bidez.</p> <p>k) Musikaren espresiorako gune naturalak diren kontzertuetan parte hartzea.</p>	<p><i>Maila hauetan ebaluaketa jarraitua landuko da, honen eta entzunaldien laguntzaz proposatu diren helburuak zein neurritan betetzen diren aztertuko da.</i></p> <p><i>Aurrerantzean egingo den lan guztiaren oinarriak une honetan ezartzen direnez, hauen sendotasuna neurtu behar da.</i></p> <p><i>Ikasleak irakasleak proposatzen dituen ekintzen aurrean eta ikaskideekin azaltzen duen jarrera ere kontutan hartuko da:</i></p> <p>a) Gorputzaren jarrera, ahokera, arnasketa eta haize zutabearen behaketa jarraia.</p> <p>b) Ikastearen ahalmenaren zainketa.</p> <p>c) Ikasketaren kalitate mailaren behaketa interpretazioaren bidez, bakarkako nahiz taldeko saioetan.</p> <p>d) Buruz ikasteko ahalmena.</p> <p>e) Bat-bateko irakurketarako trebezia.</p> <p>f) Sormenaren eta inprobisazioaren kalitatea.</p> <p>g) Irakaslearen materialen egoera.</p> <p>Jarrerak:</p> <p>a) Instrumentuaren ezaguerarekiko gogo sortzea.</p> <p>b) Gorputzaren jarrera eta tentsio-erlaxazio indarren arteko orekaren garrantziaz jabetzea.</p> <p>c) Zailtasunen aurrean eguneroko lanaren behararen garrantziaz jabetzea.</p> <p>d) Norberaren aurkikuntzak adierazteko gogo edukitzea.</p> <p>e) Interpretazioaz gozatzea.</p> <p>f) Musikarekin zerikusiaduen edozereko jakin-mina edukitzea.</p> <p>g) Bai irakaslearen eta baita beste ikaskideen proposamenak baloratu eta errespetatzen jakin.</p>

EDUKIEN SEKUENTZIA

- a) *Gorputzaren ezagutza:*
- *Erlaxazioa.*
 - *Arnasketa.- pixkakako entrenamendua airea biriken behealdean kokatu ahal izateko. Haize zutabea presio abdominalaren bidez eusteko ahalmena landu.*
- b) *Tresnaren ezagutza:*
- *Bilakaera historian zehar.*
 - *Entretanimendua.*
 - *Ahokera, emisio naturala.*
 - *Aukera akustikoak: doinuaren kalitatea melodian.*
 - *Teknika.- instrumentuaren teknikaren oinarria: dijitazioa, artikulatzea, irakurketa.*
 - *Ikasteko planifikazioa eta ohitura.*
- c) *Lengoaia musikaren ezagutza instrumentupean:*
- *Lengoaia musikaren aplikazio praktikoa.*
 - *Memoria musikaren indartze eta erabiltze progresiboa.*
 - *Musikaren estruktura ezagutu eta ulertu.*
- d) *Interpretazioa:*
- *Tresnaren espresibideak.- afinazioa, dinamika, erritmoaren justutasuna, artikulatzeak, enpatea, esaldiak, etab.*
 - *Musika eta komunikazioa.*
 - *Musika entzunaldiak.*
 - *Sormena eta inprobisazio instrumentala.*
 - *Irakurketa lehen ikustaldian.*
- e) *Entzunaldiak:*
- *Musikaren analisi eta xehetasunak.*
 - *Garai eta era ezberdinetako musikak.*

METODOLOGIA (ORIENTAGARRIA)

- ESCUCHAR, LEER & TOCAR 2 , Método de tuba o bombardino con cd (ed. de haske): desde la unidad 14 hasta el final.
- ESCUCHAR, LEER & TOCAR 3 , Método de tuba o bombardino con cd (ed. de haske): Las 9 primeras unidades.
- ESTUDIOS SUPLEMENTARIOS (R.M. ENDRESEN) (del 1 al 22)
- METODO DE TUBA/BOMBARDINO ARBAN'S (pag. 17-21) estudios del 11-27
- FIRST BOOK OF PRACTICAL STUDIES FORTUBA.R, W. Getchell (32-45)
- THE TALKING TUBA (FLEXIBILIDAD) W. REGER
- ESCALAS: Hasta 4 alteraciones y los modos menores relativos.
- Pequeñas piezas para tuba con acompañamiento de C.D.
SOLOS FOR KIDS DISNEY
KIDS PLAY SOLO

ERREFERENZIAKO OBRAK:

- O Isis And Osiris.....W. A. Mozart
- Es Tu DiaFerrer Ferran
- The Policeman's Song A. Sullivan
- Der Linderbaum..... Franz Schubert
- Hey-Ho, Come To The Fair..... Easthope Martin
- Oh, Is There Not One Maiden Breast?..... A. Sullivan
- The King's JesterFloyd O. Harris
- LiedSamuel Manzananas Sancho

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Behaketa zuzena klaseetan zehar:	60%
Klaseko asistentzia	10%
Erregularatasuna banakako lanean. Helburuen emaitzan aurrera egitea	
Aldizkako kontrolak:	15%
- Entzunaldiak	15%
- Hiru hileroko ikasgelako kontrolak	

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

- Etengabeko E. Galtzea: berreskuratzeko PROBA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute beraien deialdi arruntean (ekainaren hasieran).
- Ebaluazio arruntean (azken kalifikazioa) nota negatiboa duten ikasleek aparteko deia (ekainaren erdialdean) berreskuratzeko TESTU TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute.
- Gaia ikasgaiarekin sustatzen duten ikasleek hurrengo ikastaroko ebaluazioaren batean berreskura ditzakete.

ERREKUPERAZIOZKO PROBA TEKNIKO-INTERPRETATIBOKOA

- Irakasleak aukeratutako eskalen, ikasketen eta lanen programa interpretatzea, eskatutako mailaren arabera.

OHARRAK

Metodologiaren zerrendak Tuba zein Euphonium-entzat azterlanak eta lanak biltzen ditu.

Proposatutako ikasketak eta lanak orientagarriak dira eta hauek edo beste batzuk izan daitezke irakaslearen esku.

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681
IRAKASGAIA	TUBA	MAILA	OINARRIZKO IRAKASKUNTZEKO 4. MAILA

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>a) Jotzen ongi pasatzea.</p> <p>b) Postura eroso lantzea, naturalki arnasten utziko duena eta bi eskuen arteko koordinaketa eta instrumentuaren kolokazioa erreztuko dituen</p> <p>c) Aire zutabea egokitzea, arnasketa diafragmatikoaren erabilera lortzeko.</p> <p>d) Enbokaduraren muskuluen kontrolaren bidez emisio on bat lortzea.</p> <p>e) Instrumentua jotzeko behar diren muskuluen koordinaketalaratu.</p> <p>f) Instrumentuaren ezaugarri akustikoen berri ikasi eta erabiltzen hastea.</p> <p>g) Lengoia musikaren ezagutzak instrumentuarekin erlazionatu eta erabiltzea.</p> <p>h) Imitazio eta inprobisazioan aritzea.</p> <p>i) Bakarka edo taldean, mailari dagozkion zailtasuneko piezak jotzea.</p> <p>j) Musikarekiko sensibilitatea eta barne entzunmena lortzea audizio, memorizazio eta interpretazioaren bidez.</p> <p>k) Musikaren espresiorako gune naturalak diren</p>	<p>Maila hauetan ebaluaketa jarraia landuko da, honen eta entzunaldien laguntzaz proposatu diren helburuak zein neurritan betetzen diren aztertuko da.</p> <p>Aurrerantzean egingo den lan guztiaren oinarriak une honetan ezartzen direnez, hauen sendotasuna neurtu behar da.</p> <p>Ikasleak irakasleak proposatzen dituen ekintzen aurrean eta ikaskideekin azaltzen duen jarrera ere kontutan hartuko da:</p> <p>a) Gorputzaren jarrera, ahokera, arnasketa eta haize zutabearen behaketa jarraia.</p> <p>b) Ikastearen ahalmenaren zainketa.</p> <p>c) Ikasketaren kalitate mailaren behaketa interpretazioaren bidez, bakarkako nahiz taldeko saioetan.</p> <p>d) Buruz ikasteko ahalmena.</p> <p>e) Bat-bateko irakurketarako trebezia.</p> <p>f) Sormenaren eta inprobisazioaren kalitatea.</p> <p>g) Ikaslearen materialen egoera.</p> <p>Jarrerak:</p> <p>a) Instrumentuaren ezaguerarekiko gogo sortzea.</p> <p>b) Gorputzaren jarrera eta tensio-erlajazio indarren</p>

<p><i>kontzertuetan parte hartzea.</i></p>	<p><i>arteko orekaren garrantziaz jabetzea.</i></p> <p>c) <i>Zailtasunen aurrean eguneroko lanaren beharraren garrantziaz jabetzea.</i></p> <p>d) <i>Norberaren aurkikuntzak adierazteko gogoa edukitzea.</i></p> <p>e) <i>Interpretazioaz gozatzea.</i></p> <p>f) <i>Musikarekin zerikusia duen edozereko jakinmina edukitzea.</i></p> <p>g) <i>Bai irakaslearen eta baita beste ikaskideen proposamenak baloratu eta errespetatzen jakin.</i></p>
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA

<p>a) <i>Gorputzaren ezagutza:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Erlajazioa.</i> - <i>Arnasketa.-pixkanako entrenamentua airea biriken behelaldean kokatu ahal izateko. Haize zutabea presio abdominalaren bidez eusteko ahalmena landu.</i> <p>b) <i>Tresnaren ezagutza:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Bilakaera historian zehar.</i> - <i>Entretanimendua.</i> - <i>Ahokera, emisio naturala.</i> - <i>Aukera akustikoak:doinuaren kalitatea melodian.</i> - <i>Teknika.-instrumentuaren teknikaren oinarria: digitazioa, artikulaketa, irakurketa.</i> - <i>Ikasteko planifikazioa eta ohitura.</i> <p>c) <i>Lengoaia musikalaren ezagutza instrumentuarenpean:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Lengoaia musikalaren aplikazio praktikoa.</i> - <i>Memoria musikalaren indartze eta eralbiltze progresiboa.</i> - <i>Musikaren estruktura ezagutu eta ulertu.</i> <p>d) <i>Interpretazioa:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Tresnaren espresibideak.- afinazioa, dinamika, erritmoaren justutasuna, artikulaketak, enpatea, esaldiak, etab.</i> - <i>Musika eta komunikazioa.</i> - <i>Musika entzunaldiak.</i> - <i>Sormena eta inprobisazio instrumentala.</i> - <i>Irakurketa lehen ikustaldian.</i> <p>e) <i>Entzunaldiak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Musikaren analisi eta xehetasunak.</i> - <i>Garai eta era ezberdinetako musikak.</i>

METODOLOGIA (ORIENTAGARRIA)

<ul style="list-style-type: none"> • ESCUCHAR, LEER & TOCAR 3 , Método de tuba o bombardino con cd (ed. de haske): De la 10 hasta el final. • ESTUDIOS SUPLEMENTARIOS (R.M. ENDRESEN) (del 23 al FINAL) • METODO DE TUBA/BOMBARDINO ARBAN'S (pag. 20-28) estudios del 11-50 • FIRST BOOK OF PRACTICAL STUDIES FORTUBA.R, W. Getchell (46-60) • THE TALKING TUBA (FLEXIBILIDAD) W. REGER • 24 PROGRESSIVE VOCALISES Op. 85 Book 1 Panofka (de la 1 a la 12) • ESCALAS: Hasta 5 alteraciones y los modos menores relativos. • Pequeñas piezas para tuba con acompañamiento de C.D.
--

ERREFERENZIAKO OBRAK:

Tuba Tunes.....Ronald Hanmer*
 Variations on a temperance themeE. A. Parkhurst*
 BombardonA. Will
 Work song..... James barnes
 None But the Lonely Heart Peter I. Tschaikowsky
 Concert for Children.....Licor. B.
 EneasRubén Jordán Flores

***SARRERA FROGA PROFESIONALA IRAKASKUNTZA**

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Behaketa zuzena klaseetan zehar:	60%
Klaseko asistentzia	10%
Erregularatasuna banakako lanean. Helburuen emaitzan aurrera egitea	
Aldizkako kontrolak:	15%
- Entzunaldiak	15%
- Hiru hileroko ikasgelako kontrolak	

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

- Etengabeko E. Galtzea: berreskuratzeko PROBA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute beraien deialdi arruntean (ekainaren hasieran).
- Ebaluazio arruntean (azken kalifikazioa) nota negatiboa duten ikasleek aparteko deia (ekainaren erdialdean) berreskuratzeko TESTU TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute.
- Gaia ikasgaiarekin sustatzen duten ikasleek hurrengo ikastaroko ebaluazioren batean berreskura ditzakete.

ERREKUPERAZIOZKO PROBA TEKNIKO-INTERPRETATIBOKOA

- Irakasleak aukeratutako eskalen, ikasketen eta lanen programa interpretatzea, eskatutako mailaren arabera.

OHARRAK

Metodologiaren zerrendak Tuba zein Euphonium-entzat azterlanak eta lanak biltzen ditu.
 Proposatutako ikasketak eta lanak orientagarriak dira eta hauek edo beste batzuk izan daitezke irakaslearen esku.

OARRAK

OINARRIZKO MAILAKO METODOLOGIA OINARRIAK

Bakoitzaren gorpuzkera instrumentuen berezitasunetara egokitu beharrak komenigarri egiten du musikako ikasketak lehenbailehen hastea, adinari begiraturuz gero.

Ikasketa horien zailtasunaren ondoriozko hezkuntzaibilbide luzeak, ezinbestean dakar musikako ikasketak derrigorrezko hezkuntzakoekin eta Batxilergoakoekin

batera egitea. Hortaz, bi irakaskuntza moten hezkuntzako prozesuek eraikuntza-jarduerako oinarri bereberei jarraitzea komeni da, irakaskuntzako jardueran faktorerik garrantzitsuena den aldetik, azken finean, ikasleak berak eraikiko du eta, bere ezagutza eskemak aldatuz eta landuz.

Curriculum irekietako irakaskuntzako metodoak irakaslearen erantzukizun dira, neurri handi batean, eta hezkuntzako arduradunek ez dituzte osorik garatu behar.

Ezari behar den curriculumaren kontzeptu eta edukietarako funtsezko diren neurrian bakarrik aipatu behar dira oinarri pedagogikoak.

Horregatik, irakasleen hezkuntza-jarduera erregulatzeke eta Dekretu honetan ezarritako curriculuma garatzeko, ondoko oinarri metodologiko orokorrak aipatzen dira, arau honetan erregulatzen diren instrumentu- espezialitate eta asignatura guztientzat baliagarri direlakoan.

Instrumentuaren irakaskuntzen helburu den musikaren interpretazioa, definizioz, ekintza dibertsoa eta oso subjektiboa da; eta horren azken soinuak emaitzan ondokoak elkartzen dira, banandu ezin den unitatean:

obran dagoen sortzailearen mezua, eta interpreteak mezu hori emateko duen modu berezia, egilearen mezua bereganatzen baitu, bere sentsibilitatearekin modulaturaz.

Hezkuntza-jarduera orotan bezala, hemen lortu nahi den azken helburua ikaslearen nortasuna eta sentikortasuna garatzea da, musika emozio-adierazpidea baita, kontzeptu-komunikazioa baino gehiago; subjektibotasunak, beraz, lehen maila betetzen du.

Mota honetako irakaskuntza prozesuan zehar, irakasleak gidari edo aholkulari izan behar du, inoiz baino gehiago. Eta arazo edo zailtasun konkretuei soluzio konkretuak ematearekin batera, aukerak eskaintzen

saiatu behar du, irizpideak inposatzen baino gehiago; orientabideak erakusten, aurrez erabakitako emaitza batzuetarantz eskutik helduta eramaten baino gehiago; eta gertaera artistikoaren aurrean ikaslearen harrera-ahalmena eta erantzun-ahalmena zabaltzen eta bultzatzen.

Inoiz behin betikitzen ez den nortasun artistikoaren eraikuntzan, ikaslea da protagonista nagusi, bakarra ez esatearren.

Irakasleak «arte maieutiko»ari dagokion

lana baino ez du egin behar.

Honen moduko gaiak, beraz, programazio irekia eta malgua behar dute. Ikastetxeek eta bertako irakasleek nahikoa malgutasuna duen programazioa ezarri behar dute; interpretazio-gaitasuna mailaz maila hobetzea («teknika hobetzea») kontuan hartuz, ikasle bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokitzea posible izan dadin,

ikaslearen aukerak garatuz eta hutsuneak betez.

Teknikari dagokionez, sakon ulertu behar da (eta hala ulertarazi behar zaio ikasleari ere), exekuzioaren mekanika hutsaren kontzeptua gainditzeko duen egiazko «interpretazioaren teknika» bezala, mekanika hori interpretazioaren teknikaren zati den arren. Izan ere, teknika, esanahirik zabalenean, obra artistikoaren errealizazioa da eta, beraz,

bertan bat egin eta integratzen da, eta aldi berean da bitarteko eta helburu.

Irakaskuntzako prozesuak ikaskuntzen funtzionaltasuna bermatu behar du, ikasleak behar duenean, edozein egoeratan, erabiliko dituela segurtatuz.

Irakaskuntza funtzionala ez da bakarrik jasotako ezagutzen aplikazio praktiko posiblea, baizik eta, batez ere, edukiak beste ikaskuntza batzuk burutzeko beharrezko

eta erabilgarri izatea, eta beste eduki batzuk arrakastaz bereganatzeko baliagarri izatea.

Bestalde, edukien egiturak argiro erakutsi behar ditu edukien arteko erlazioak, eta, beharrezkotzat jotzen denean, alor bereko edukien arteko eta irakasgai desberdinen

edukien arteko erlazioa ere planteatu behar da.

Musika-hizkuntzak, Harmoniak, Analiak eta Konposizioaren oinarriak osatutako katearen funtsezko ezaugarri gehienek izaera teoriko nabariaren ondorioz, alderdi praktikoa nahikoa bazterturik utzi duen irakaskuntza

atera izan da.

Dekretun bildutako ebaluazio-irizpideek hainbat hezkuntzako alderdi garatzen dituzte, eta irakasleak alderdi horiek erabili behar ditu ikasleari orientabideak emateko, ikaslearen akatsen edo gabezien arabera. Irizpide horien bitartez,

era berean, ikasteko modu bat bultzatuko da, zeinetan musikaren alderik praktikoa, soinu-materiarekiko zuzeneko kontaktua, ikasketa hauetan burutu behar den hausnarketa teorikoaren batera garatuko baita.

Irakasleen proiektu eta programazioek azpimarratu egin behar dituzte instrumentu espezialitate eta irakasgai

bakoitzak lanbide eremuan duen helburua eta esanahia, ikastetxe eta lan munduaren arteko lotura handiagoa ezarri, eta lan mundua irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren

helburutzat hartuz, eta lehen mailako baliabide pedagogikotzat kontsideratuz.

Curriculum proposamenaren izaera ireki eta malguak garrantzi handia ematen dio irakaskuntzako taldearen baterako lanari.

Curriculum-proiektua hezkuntzako jarduerari buruzko gogoetari lotutako tresna da, eta horren bitartez, irakasleen taldeak aukera du curriculuma ikastetxearen testuinguru bereziari egokitzeko.

Ebaluazioak ematen duen informazioak jarduera pedagogikorako erreferentziatzat hartu behar dira.

Hori dela eta, era jarrai eta pertsonalizatua burutzeko prozesua izango da ebaluazioa, ikaslearen garapen partikularrari dagokion heinean, eta informazioa eman behar dio ikasleari, bere aukerak eta gaitasunak kontuan hartuta zenbat aurreratu duen jakin dezan, aurrez ezarritako ustezko errendimendu arauekin konparatu gabe.

Izan ere, ikasleen irakaskuntza eta irakaskuntza prozesu bera ebaluazioaren helburu.

Ebaluazioak ematen duen informazioa baliagarria da irakasle taldeak informazio azpimarragarria izan dezan, bere hezkuntzako jarduera kritikoki analizatu, eta erabakiak hartu ahal izateko.

Horregatik, ikasleen ebaluazio jarraituak ematen duen informazioa, noski, bete nahi diren asmoekin eta horiek gauzatzeko ekintza-planarekin erlazionatu behar da.

Beraz, ondokoak ebaluatzen dira: irakaskuntza prozesuaren programazioa, eta irakaslearen parte-hartzea, prozesu horien antolatzaile den aldetik.

Curriculum proiektuaren barnean, hortaz, ebaluazio mota hori gauzatzeko forma, tresna eta egoerarik egokienak zehaztu behar dira.

Bertan, irakasleen ekipoek, mailako helburu orokorrak eta ebaluazio-irizpideak testuinguruan jartzeaz gain, ikasturte edo maila bakoitzerako ebaluazioaren helburu eta irizpideak zehaztu beharko dituzte, dagozkien curriculum proiektuarekin erlazionatutako irakaskuntzak kontuan hartuz.

Ikasleak ere parte hartu behar du prozesuan, autoebaluazioaren eta koebaluazioaren bidez. Izan ere, ikasleen autonomia eta parte hartze arduratsua bultzatu nahi dira etapa honetan, eta zenbait gairi buruzko uste eta irizpide pertsonalak lantzea hezkuntzaren lehentasuna da.